BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**ERAKUNDE ADIERAZPENA**

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN ERAKUNDE-ADIERAZPENA, SESTAON GERTATUTAKO EMAKUME BATEN HILKETEA DALA-ETA

(*Bilbon, 2021eko zezeilaren 12an*). Bizkaiko Batzar Nagusiek argi eta garbi gaitzesten eta arbuiatzen dabe Sestaon gertatu dan emakume baten hilketea. Era berean, batzarkide-talde guztiek alkartasuna helarazo gura deutsee biktimearen familiakoei, lagunei eta gertukoei.

Bizkaiko Batzar Nagusiek gogotara ekarri gura dabe eze hilketak emakumeen aurkako indarkeriaren arazoaren zati bat baino ez dirala, arazoaren haztegia emakumeen eta gizonen arteko ezbardintasuna da-eta. Emakumeek gizartean pairatzen daben egiturazko desbardintasun- eta mendetasun-egoerea da emakumeenganako indarkeria mota guztien jatorri komuna. Izan be, gizarteak bardintasunaren eta guztien ongizatearen bidean aurrera egitea eragozten dau horrek.

Genero-indarkeria ez da hori pairatzen daben pertsonen arazo pribatua, ezpada ze herritar guztiena, desbardintasunen agerpenik bortitzena da-eta.

Azkenik, Bizkaiko Batzar Nagusiek lanean jarraituko dabe genero-indarkeriaren aurka, emakumeen eta gizonen arteko bardintasun- eta errespetu-politikak bultzatuz, harik eta eraso matxistarik bako Bizkaia lortu arte, non emakumeek erasotuak izateko bildurrik izango ez daben, emakumeen eta gizonen arteko errespetuzko alkarbizitzan.

Hilketa tragiko horrek hunkiturik, Batzar Nagusiotako Taldeburuen Batzarrak erakunde-adierazpen hau onartzen dau, emakumeenganako indarkeria gaitzetsi eta arbuiatzeko:

1. Erabat gaitzetsi eta arbuiatzen dogu edozein motatako indarkeria eta, bereziki, genero-indarkeria.

2. Emakume erailaren sendiari, lagunei eta auzokoei gure maitasuna, alkartasuna eta doluminak helarazoten deutseguz.

3. Era berean, animatu egiten ditugu herritarrak parte hartu daien Sestaoko Udalak, segurtasun-neurriak mantenduz, biharko, otsailaren 13ko 12:00etarako, deitu dauen kontzentrazinora.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL**

# DECLARACIÓN DE CONDENA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA ANTE EL ASESINATO DE UNA MUJER EN SESTAO

(*Bilbao, a 12 de febrero de 2021*). Las Juntas Generales de Bizkaia muestran su más firme condena y repulsa ante el asesinato de una mujer ocurrido en Sestao. Asimismo, todos los grupos junteros trasladan su solidaridad a familiares, amigos y amigas y personas allegadas a la víctima.

Las Juntas Generales de Bizkaia recuerdan que las muertes sólo muestran una parte del problema de la violencia contra las mujeres cuyo caldo de cultivo se genera en las desigualdades de mujeres y hombres. Todas las formas de violencia contra las mujeres tienen en común su origen en la situación estructural de desigualdad real y subordinación en que se encuentran las mujeres en la sociedad, que impide que la sociedad avance en el camino de la igualdad y el bienestar común.

La Violencia de Género no es un problema privado de las personas que la sufren, sino que afecta a toda la ciudadanía, al ser la manifestación más brutal de las desigualdades.

Las Juntas Generales de Bizkaia seguirán trabajando contra la violencia de género, fomentando políticas de igualdad y respeto de los hombres hacia las mujeres para conseguir una Bizkaia libre de agresiones machistas, donde las mujeres no tengan miedo a ser agredidas y con una convivencia respetuosa entre hombres y mujeres.

Conmocionados ante el trágico asesinato, la Junta de Portavoces de estas Juntas Generales aprueba realizar la siguiente declaración de condena y repulsa contra la violencia ejercida hacia las mujeres, en la que declara:

1. Manifestar nuestro rechazo total y condena a cualquier tipo de violencia, y en especial a la violencia de género.

2. Comunicar el pésame, apoyo, cariño y solidaridad a la familia, amigos y amigas y vecinos y vecinas de la mujer asesinada en Sestao.

3. Asimismo, animar a la ciudadanía a participar en la concentración convocada por el Ayuntamiento de Sestao para mañana sábado, día 13 de febrero, a las 12:00 horas, manteniendo las medidas de seguridad.